

**PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU**  
**MARDI 3 JUIN 2025**

Le vingt-six juin deux mille vingt-cinq, à dix-neuf heures, le Conseil Municipal d'UZTARITZE, régulièrement convoqué, le dix-neuf juin deux mille vingt-cinq, s'est réuni au nombre prescrit par la loi, sous la présidence de **Monsieur Bruno CARRERE, Maire.**

Nombre de conseillers <i>Kontseilari kopurua</i>	
en exercice <i>hautatuak</i>	29
présents <i>hor zirenak</i>	22
procurations <i>ahalordeak</i>	4
votants <i>bozkatu dutenak</i>	26

**Etaient présents / Hor ziren** : M. CARRERE Maire / Auzapeza, Mmes, GALLOIS, MARTY-CHALEON, SEMERENA - OLAIZOLA andereak, MM. GOYHENECHÉ, IBARBOURE, BLAIN, MAILHARRANCIN jaunak Adjoints / Axuantak, Mmes DOYHENART, ETCHEBARNE, LARRIEU, CASABONNET-MOULIA, DO COITO SABIO, ELIS, MM. SERRANO, ROUGET, ESTEINOU, URRUTIA, SOCODIABEHÉRE, SARRATIA, DARQUY, DESGROLARD, jaunak Conseillers municipaux / Herriko hautetsiak.

**Etaient excusés / Barkatuak** : Mme. CEDARRY anderea (procuration/ ahalordea à M. CARRERE jaunari), Mme MOUESCA anderea (procuration/ ahalordea à Mme MOULIA andereari), Mme SONNET-ORHATEGARAY anderea (procuration /ahalordea à Mme. SEMERENA andereari), M. DRIEUX jauna (procuration / ahalordea à M. ROUGET jaunari) M. CENDRES jauna (procuration / ahalordea à M. DARQUY jaunari), Mme. BONTAN anderea (procuration / ahalordea à M. RUYS jaunari),

**Secrétaire de séance / Bilkurako idazkaria** : Madame DOYHENART anderea

**2025eko EKAINAREN 3KO HERRIKO BILTZARRAREN**  
**AKTA**

Bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hogeita seian, arratseko zazpitan, UZTARITZE-ko Herriko biltzarra, bi mila eta hogeita bosteko ekainaren hemeretziari ohiz gomitatua, bildu da legeak manatu kopuruan, **Bruno CARRERE Jaun Auzapezaren** lehendakariitzean.

**\* APPROBATION A L'UNANIMITE DU PROCES-VERBAL DU CONSEIL MUNICIPAL DU 10 AVRIL 2025**

• **AGRICULTURE - FÔRET**

**1- APPROBATION DE LA CONVENTION DE VENTE ET EXPLOITATION GROUPEES**

Monsieur Serrano présente le rapport suivant :

Après avoir entendu l'exposé au sujet du projet de commercialisation en vente et exploitation groupée

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DECIDE** d'exploiter à l'entreprise la coupe de la parcelle 13 et d'en commercialiser les produits en tant que bois façonnés.

- **DEMANDE** à l'ONF de pouvoir bénéficier conformément aux articles L214-7 et L214-8 du code forestier, de la formule "vente et exploitation groupée

**\* 2025EKO APIRILAREN 10EKO HERRI KONTSEILUKO**  
**AKTAREN ONARPENA.**

• **LABORANTZA - OIHANA**

**1- SALMENTA ETA USTIATZE MULTZOKATUEN**  
**HITZAMENAREN ONARTZEA**

Serrano jaunak txostena aurkeztu du:

Salmenta eta ustiatze multzokatu proiektuari buruzko aurkezpena entzun ondotik,

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- 13 lursaileko egurraren moztea enpresari eginaraztearen eta moztu egurra egur moldatu gisa saltzearen **ERABAKITZEN DU** .

- ONF erakundeari **GALDEGINEN DU**, oihanen kodeko L214-7 eta L214-8 artikuluen arabera, "oihanen ustiatze eta salmenta multzokatua" formula baliatzen ahal duen, horri esker herriak posible baitu oihanen

des bois", qui permet à la commune d'éviter de faire l'avance des frais d'exploitation des bois. L'ONF, maître d'ouvrage de l'opération, est chargé de mettre en vente les bois bord de route puis de reverser à la commune le produit de la vente après déduction des frais d'exploitation et des frais de gestion (1% du montant des vente en contrat d'approvisionnement).

- **AUTORISE** Monsieur le Maire à signer la convention organisant l'intervention de l'ONF en vue d'exploitation et vente groupées des bois ainsi que ses potentiels avenants.

#### **\* URBANISME – TRAVAUX – VOIRIE**

#### **2- INCORPORATION DANS LE DOMAINE COMMUNAL D'UN BIEN PRESUME SANS MAITRE**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant :

Il rappelle la réglementation applicable aux biens n'ayant pas de maître et la procédure à suivre. Il expose qu'a été pris l'arrêté constatant la vacance des parcelles cadastrées section AP n°408 d'une superficie de 30 m<sup>2</sup>, AP n°414 d'une superficie de 530m<sup>2</sup> et AP n°416 d'une superficie de 18m<sup>2</sup>, et qu'un délai de six mois à compter de la dernière des mesures de publicité réglementaires s'est écoulé sans qu'aucune personne ne vienne réclamer la propriété dudit immeuble.

En conséquence, en application de l'article L.1123-3 du Code Général de la Propriété des Personnes Publiques, cet immeuble doit revenir à la Commune si celle-ci ne renonce pas à ce droit. Pour cela, le Conseil doit l'incorporer dans son domaine, sachant qu'à défaut de délibération dans ce sens, la propriété de l'immeuble en question est attribuée à l'État.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DÉCIDE** d'incorporer dans le domaine communal les parcelles cadastrées section AP n°408, AP n°414 et AP n°416

- **CHARGE** le Maire de procéder à toutes les formalités nécessaires à cette opération, notamment prendre l'arrêté d'incorporation dans le domaine communal dudit immeuble et signer tous documents et actes nécessaires à cet effet.

Ensemble pour Ustaritz : Comment connaissez-vous ces biens ??

UB : cela fait partie des régularisations et recherches que nous effectuons tout au long de l'année,

ustiatzeko gastuen ez aitzinatzea. ONF eragiketaren obragilearen gain da bide bazterretako egurraren salgai ematea eta salmentaren irabaziak herriari ematea, ustiaketa eta kudeaketa gastuak kenduta (hornidura kontratuetan, zenbatekoaren % 1).

- Auzapez jaunari egurraren salmenta eta ustiatze multzokaturako ONFren esku hartzearen antolatzeko hitzarmenaren eta balizko gehigarrien sinatzeko **BAIMENA EMATEN DU**.

#### **\* HIRIGINTZA – OBRAK – BIDEAK**

#### **2- USTEZ JABERIK EZ DUEN ONDASUN BAT HERRIKO JABEGOAN SARTZEA**

Goyheneche jaunak gaia aurkeztu du:

Jaberik ez dutenen ondasunei buruzko araudia eta baliatu behar den prozedura oroitarazi ditu.

Lursail hauek hutsik daudela aintzat hartzen duen erabakia hartu dela azaldu du: AP n°408, 30 m<sup>2</sup>-koa; AP n°414, 530m<sup>2</sup>-koa; eta AP n°416, 18m<sup>2</sup>-koa. Gehitu du, araudiari jarraiki, informazioa argitaratu ondotik sei hilabete iragan direla eta nehork ez duela higiezin horren jabegoa aldarrikatu.

Ondorioz, Pertsona Publikoen Jabegoaren Kode Orokorreko L.1123-3 artikuluari jarraiki, higiezin hori herriari dagokio, ez badio eskubide horri uko egiten. Horretarako, Herriko kontseiluak herriaren jabegoan sartu behar du. Aldeko deliberamendurik hartzen ez bada, higiezinaren jabegoa Frantziako estatuari egokituko zaio.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- Kadastran AP n°408, AP n°414 eta AP n°416 erreferentziak dituzten lursailak herriko jabegoan sartzearen **ERABAKITZEN DU**

- Auzapez jaunaren **GAIN UZTEN DU** eragiketa horretarako behar diren formalitate guzien egitea, bereziki higiezin hori herriko jabegoan sartzeko erabakiaren hartzea eta horretarako behar diren agiri guzien izenpetzea.

Ensemble pour Ustaritz: Nola duzue ondasun horien berri??

UB: Urte osoan egiten ditugun erregulartze eta ikerketen parte da, bereziki leku erreserbatuetan eta

notamment sur les emplacements réservés ou autres servitudes. Nous regardons le cadastre et connaissant l'histoire d'Ustaritz, les parcelles ici nommées étaient attribuées à une société n'ayant plus d'activité. Après recherche de repreneur ou successeur potentiel, il s'avère que ce n'est pas le cas. Ces parcelles sont fléchées pour de la voirie (liaison douce et axe piéton).

### 3- BAIL EMPHYTEOTIQUE - ASSOCIATION HEGALALDIA

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant :

Il expose que la parcelle cadastrée section BC n°0004 et n°0008, appartenant à la Commune, était jusqu'alors mises à disposition sous forme de prêt à usage à l'association Hegalaldia.

L'association a manifesté son souhait de réaliser des constructions plus pérennes sur ce terrain avec notamment la mise aux normes, le réaménagement et l'agrandissement du centre de soins.

La signature d'un bail emphytéotique permettrait notamment à l'association d'agir comme le propriétaire pendant la durée du bail. Les taxes seront à la charge du preneur à bail, de même que les dépenses liées aux travaux et constructions. De plus, cette procédure aurait l'avantage pour l'association de pouvoir donner le bien en garantie, si un prêt était nécessaire, ce uniquement pour la durée du bail.

La Commune souhaite garder la propriété de la parcelle en cause mais propose de la donner à bail emphytéotique, sous les conditions suivantes :

- **Forme juridique** : bail emphytéotique ;
- **Durée** : 50.ans, à compter du 01/07//2025 (la durée doit être supérieure à 18 ans et inférieure à 99ans)
- **Parcelle(s) concernée(s)** :

Section	Numéro	Superficie
BC	0004	1Ha 14a 85Ca
BC	0008	1Ha 13a 29Ca

- **Loyer** : 15 € par an.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

bide zorrak dituzten lekuetan. Kadastrari so egiten diogu eta, Uztaritzeko historia ezagutzen dugunez, badakigu hemen aipatu lursailak orain gehiago martxan ez den sozietate bati lotuak zitzazkiola. Berriz har ala segida har zezakeen norbait bilatu dugu, baina ez da. Beraz, lursail horiek bideen egiteko aurreikusten dira (ibilgailu goxoendako eta oinezkoendako).

### 3- ALOKAIRU KONTRATU ENFITEUTIKOA - HEGALALDIA ELKARTEA

Goyheneche jaunak gaia aurkeztu du:

Kadastran BC n°0004 eta n°0008 erreferentziak dituen eta herriarena den lursaila orain arte Hegalaldia elkarteari eskura ematen ziotela azaldu du. Elkarateak jakinarazi du lursail horretan eraikin iraunkorrakoak ezarri nahi dituela, bereziki arta zentroaren araudiari egokitzeko, berrantolatzeke eta handitzeko.

Alokairu kontratu enfiteutiko bat sinatuz, kontratua indarrean den bitartean elkarateak jabe gisa jokatzeko ahalko luke. Zergak kontratuaren onuradunaren gain lirateke, baita obrei eta eraikuntzei lotu gastuak ere. Horrez gain, elkarteari ondasuna berme gisa emateko parada emango lioke, behar izanez gero eta kontratua indarrean den bitartean soilik.

Herriak lursailaren jabegoa atxiki nahi du, baina alokairu-kontratu enfiteutiko baten sinatzea proposatzen du, baldintza hauekin:

- **Forma juridikoa**: alokairu kontratu enfiteutikoa;
- **Iraupena**: 50 urte, 2025/07/01etik goiti (iraupena 18 eta 99 urte artekoa izan behar da)
- **Lursaila(k)**:

- **Alokairua**: Urtean 15 €.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- **DÉCIDE** de donner à bail emphytéotique la parcelle cadastrée section section BC n°0004 et n°0008, d'une superficie de 2Ha 28a 14ca, au profit de l'association Hegalaldia pour une durée de 50 ans commençant à courir le 01 juillet 2025, moyennant un loyer annuel de 15 €.,

- **CHARGE** le Maire de procéder à toutes les formalités nécessaires à cette opération.

*Ensemble pour Ustaritz : Le fait que la mairie soit partie prenante les aide-t-il financièrement ?*

*UB : Le plus important pour eux et dans la recherche de financement, c'est que nous leur garantissons l'engagement longue durée. Toutes les mairies ne le font pas.*

**4- AUTORISATION DE DEPOT D'UN PERMIS DE CONSTRUIRE POUR LA MISE AUX NORMES-LE REAMENAGEMENT-L'AGRANDISSEMENT DU BATIMENT DE SOINS- PARCELLES COMMUNALES - BC N° 0004 ET 0008 SECTEUR BERETERRENBORDA ASSOCIATION HEGALALDIA.**

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

L'association Hegalaldia domiciliée 229, Chemin de Bereterrenborda a fait connaître son projet d'extension, de réaménagement et de mise aux normes de leurs bâtiments de soins nécessaire à leur activité sur les parcelles communales BC n° 0004 et 0008 secteur Bereterrenborda qui lui sont mises à disposition au titre de prêt à usage.

Il nous appartient de l'autoriser à déposer un permis de construire et à modifier le contrat qui la liera à la commune par la signature d'un bail emphytéotique pour organiser la situation de ce bâtiment sur la durée d'occupation de ce terrain.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **AUTORISE** l'association Hegalaldia à déposer un permis de construire pour un projet d'extension, de réaménagement et de mise aux normes de leurs bâtiments de soins sur les parcelles communale BC n° 0004 et 0008 secteur Bereterrenborda.

- **CHARGE** Monsieur le Maire de signer tous documents afférents à cette décision.

- Kadastran BC n°0004 eta n°0008 erreferentziak dituen 2Ha 28a 14ca azalerako lursaila kontratu enfiteutiko baten bitartez Hegalaldia elkarteari eskura ematearen **ERABAKITZEN DU**, 50 urterako, 2025eko uztailaren 1.etik goiti, urtean 15 €-ko alokairuaren truke,

Auzapezari eragiketa horren gauzatzeko beharko diren formalitate guzien egiteko **BAIMENA EMATEN DU**.

*Ensemble pour Ustaritz: Herriko etxeak parte hartzea diruz lagungarri ote da elkar tearentzat?*

*UB: Hai entzat, garrantzitsuena, diruztatzeen bilaketan, guk epe luzerako engaiamenduaren bermatzea da. Herriko etxe guziek ez dute hori egiten.*

**4- ARTA ERAIKIN BATEN ARAUDIARI EGOKITZEKO-BERRANTOLATZEKO-HANDITZEKO ERAIKITZEKO BAIMEN BATEN AURKEZTEAREN ONARTZEA - UDAL LURSAILAK- BC N° 0004 ETA 0008 BERETERRENBORDA EREMUA - HEGALALDIA ELKARTEA.**

Goyheneche jaunak gaia aurkeztu du:

Egoitza Bereterrenborda bideko 229.ean duen Hegalaldia elkarteak bere jarduerarako beharrezkoa duen arta-eraikinaren handitzeko, berrantolatzeko eta araudiari egokitzeko proiektuaren berri eman digu. Eraikin hori BC n° 0004 eta 0008 erreferentziak dituzten udal lursailetan dago, Bereterrenborda eremuan. Orain arte, eraikina elkarteari eskura ematen zaio.

Eraikitze baimen galde baten aurkezteko eta herriarekin duen kontratuaren aldatzeko baimena eman behar diogu, alokairu-kontratu enfiteutikoa sinatuz, lursail horretan egonen diren bitartean eraikinaren egoeraren antolatzeko.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- Hegalaldia elkarteari Bereterrenborda eremuan BC n° 0004 eta 0008 erreferentziak dituzten lursailetan dagoen arta-eraikinaren handitzeko, berrantolatzeko eta araudiari egokitzeko proiektuaren gauzatzeko eraikitze baimen galde baten aurkezteko **BAIMENA EMATEN DU**.

- Auzapez jaunari erabaki horri dagozkion agiri guzien izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DU**.

## 5- ACQUISITION DE PARCELLES PLACE DU LABOURD ASSOCIATION D'EDUCATION POPULAIRE SAINT VINCENT.

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant :

« Par une délibération du 25 juin 2015 le Conseil Municipal décidait l'acquisition de parcelles cadastrées section AO n°916 pour une surface de 34m<sup>2</sup>, AO n°914 pour une surface de 8m<sup>2</sup>, AO n°632 pour une surface de 273 m<sup>2</sup> et AO n°633 pour une surface de 15m<sup>2</sup>.

L'acte de cession n'a pu aboutir et il convient de délibérer à nouveau afin de rajouter la parcelle manquante AO n°610 pour une surface de 130m<sup>2</sup>.

Ainsi, la Commune pourra régulariser les emprises de la voie dite « Rue des Vicomtes du Labourd ».

Il convient d'acquérir à l'euro symbolique les parcelles cadastrées section AO n°916 pour une surface de 34m<sup>2</sup>, AO n°914 pour une surface de 8m<sup>2</sup>, AO n°632 pour une surface de 273 m<sup>2</sup>, AO n°633 pour une surface de 15m<sup>2</sup> et AO n°610 pour une surface de 130m<sup>2</sup>.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DECIDE** d'acquérir à l'euro symbolique les parcelles cadastrées section AO n°916 pour une surface de 34m<sup>2</sup>, AO n°914 pour une surface de 8m<sup>2</sup>, AO n°632 pour une surface de 273 m<sup>2</sup>, AO n°633 pour une surface de 15m<sup>2</sup> et AO n°610 pour une surface de 130m<sup>2</sup>.

- **AUTORISE** Monsieur le Maire à signer tout acte afférent à cette acquisition ;

- **DECIDE** de leur classement et de leur intégration dans le domaine public communal ;

- **RAPPORTE** la délibération n°3 du 25 juin 2015

## 6- TRAVAUX DE CREATION D'UN CARREFOUR GIRATOIRE AU CROISEMENT DE LA ROUTE DE BELHARRITZA (RD932), DE LA RUE DES VICOMTES DU LABOURD (RD250) ET DE BAZTER KARRIKA - REGULARISATION FONCIERE - SCI JBS

Monsieur Goyheneche présente le rapport suivant,

La Commune et le Conseil Départemental des Pyrénées-Atlantiques ont souhaité sécuriser le croisement des voiries dénommées route de Belharritza (RD932), rue des Vicomtes du Labourd (RD250) et Bazter Karrika par la création d'un carrefour giratoire. Deux voies départementales étant concernées par le projet, le Conseil Départemental

## 5- LAPURDIKO PLAZAKO LURSAILEN EROSTEA - SAINT VINCENT HEZKUNTZA HERRIKOIRAKO ELKARTEA.

Goyheneche jaunak gaia aurkeztu du:

"2015eko ekainaren 25ean, Herriko kontseiluak erabaki zuen kadastran erreferentzia hauek dituzten lursailen erostea: AO n°916, 34m<sup>2</sup>-koa; AO n°914, 8m<sup>2</sup>-koa, AO n°632, 273 m<sup>2</sup>-koa; eta AO n°633, 15m<sup>2</sup>-koa.

Erosketa eragiketa ezin izan da bururaino eraman, eta berriz deliberatu behar da, eskas den lursail honen gehitzeko: AO n°610, 130m<sup>2</sup>-koa.

Hala, herriak "Lapurdiko Bizkondeen karrikan" dauden zortasunak erregulartuko lituzke.

Kadastran erreferentzia hauek dituzten lursailen erostea komeni da, euro sinboliko baten truke: AO n°916, 34m<sup>2</sup>-koa; AO n°914, 8m<sup>2</sup>-koa, AO n°632, 273 m<sup>2</sup>-koa; AO n°633, 15m<sup>2</sup>-koa; eta AO n°610, 130m<sup>2</sup>-koa.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

-Euro sinboliko baten truke kadastran erreferentzia hauek dituzten lursailen erostearen **ERABAKITZEN DU**: AO n°916, 34m<sup>2</sup>-koa; AO n°914, 8m<sup>2</sup>-koa, AO n°632, 273 m<sup>2</sup>-koa; AO n°633, 15m<sup>2</sup>-koa; eta AO n°610, 130m<sup>2</sup>-koa.

- Auzapez jaunari erosketa horri dagozkion agiri guzien izenpetzeko **BAIMENA EMATEN DU**.

- Lursailak horiek udal jabego publikoan sartzearen **ERABAKITZEN DU**.

- 2015eko ekainaren 25eko 3. deliberamenduaren **LOTZEN DU**

## 6- BELHARRITZA BIDEAREN (932DB), LAPURDIKO BIZKONDEEN KARRIKAREN (250DB) ETA BAZTER KARRIKAREN ARTEKO GURUTZEBIDEAN BIRIBILGUNE BATEN SORTZEKO OBRAK - LUR FUNTSEN ERREGULARTZEA - SCI JBS

Goyheneche jaunak gaia aurkeztu du:

Herriak eta Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluak Belharritza bidearen (932BD), Lapurdiko Bizkondeen karrikaren (250DB) eta Bazter Karrikaren arteko gurutzebideko segurtasuna hobetu nahi izan dute, biribilgune bat ezarri. Proiektuan Departamenduaren bi bide zirenez,

s'est porté Maître d'ouvrage de l'opération, la commune devant participer financièrement au titre de l'aménagement du bout de la voie communale Bazter Karrika, rendu nécessaire afin de permettre son raccordement au futur giratoire.

Une délibération en date du 30 mai 2024 avait été prise pour entériner la récupération de l'emprise foncière nécessaire à la réalisation du projet au droit de la rue Bazter karrika, soit 116 m<sup>2</sup> sur la parcelle AO864 et 91 m<sup>2</sup> sur la parcelle AO448 comme le montre le plan joint.

Suite au levé de géomètre consécutif à la réalisation des travaux, il s'avère nécessaire de céder à la société JBS la surface de 88ca aujourd'hui située sur le Domaine Public le long de la voie de Bazter karrika, comme indiqué sur le plan modificatif du parcellaire cadastral joint au présent rapport.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **AUTORISE** Monsieur le Maire à céder à la société JBS la surface de 88ca désormais située au-delà du nouveau mur de soutènement récemment implanté dans le cadre de l'aménagement du carrefour giratoire.

- **FINANCES – RESSOURCES HUMAINES**

## **7- SERVICE RESSOURCES – CREATION D'EMPLOI ASSISTANT RH**

Madame Semerena- Olaizola présent le rapport suivant,

Un emploi permanent d'assistant ressources humaines à temps complet étant vacant pour cause de mutation interne, un appel à candidature a été ouvert afin d'assurer le remplacement de l'agent.

Il est proposé d'ouvrir ce poste sur les grade suivant : adjoint administratif principal 1<sup>ère</sup> classe.

Après avis du comité social technique,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DECIDE** de créer un emploi permanent d'assistant ressources humaines à temps complet sur les grades précités au sein du service ressources humaines à pourvoir le 1<sup>er</sup> juillet 2025 ;

Departamenduko Kontseilua eragiketaren obragile izan da, eta herriak diruz parte hartu du, Bazter Karrika herriko karrikaren muturrean antolamendu obren egiteko, karrika hori biribilgunera lotzeko beharrezkoak baitziren.

2024ko maiatzaren 30ean deliberamendu bat hartu genuen, Bazter karrikan proiektuaren gauzatzeko behar zen lursail-zortasunaren berreskuratzearen berresteko; hots, 116 m<sup>2</sup> AO864 lursailean, eta 91 m<sup>2</sup> AO448 lursailean, erantsi planoan agertzen den bezala.

Obrak egin ondotik geometroak egin planoaren arabera, JBS sozietateari Bazter karrikaren luzeran dagoen eta egun jabego publikoan den 88ca-ko azalerako lurra eman behar zaio, txosten honi erantsi lursailen aldatzeko planoan agertzen den gisan.

Beraz, galdegiten dizuegu Auzapez jaunari orain bidegurutzea antolatzean ezarri den hormaren beste aldean dagoen 88ca-ko azalera JBS sozietateari emateko baimenaren ematea.

- **FINANTZAK – GIZA BALIABIDEAK**

## **7- BALIABIDEEN ZERBITZUA – GB LAGUNTZAILE POSTU BATEN SORTZEA**

Semerena-Olaizola andereak txostena aurkeztu du:

Langile baten leku aldaketaren ondorioz denbora osoko giza baliabideetako laguntzaile lanpostu iraunkor bat libre denez, hautagaitza deialdi bat zabaldu da eskas den langilearen ordezkatzeko.

Lanpostu hori maila hauetarako zabaltzea proposatzen dizuegu: administrazio laguntzaile, 1. Mailako.

Batzorde teknikoaren iritzia ukan ondoan,

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- 2025eko uztailaren 1etik goiti denbora osoko giza baliabideetako laguntzaile lanpostu iraunkor baten sortzearen **ERABAKITZEN DU**, goian aipatu mailen arabera;

- Behar diren kredituak 2025eko aurrekontuan pentsatuak direla **ZEHAZTEN DU**.

- **PRECISE** que les crédits nécessaires sont prévus sur le budget 2025.

Ensemble pour Ustaritz : peut-on connaître l'identité de cette personne et sa collectivité d'origine ?

UB : il s'agit de Stéphanie Falzon qui travaille actuellement à la mairie de Bruges à côté de Bordeaux. Nous soulignons ici un bel exemple de promotion interne car Nicolas Etcheverry prend la direction du service jeunesse.

## 8- CREATIONS D'EMPLOIS SERVICE ENFANCE JEUNESSE

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant,

Suite à la réussite au concours d'ATSEM principal de 2ème classe d'un de nos agents, il est nécessaire de créer un poste correspondant, afin de permettre sa nomination à temps complet à compter du 1er juin 2025.

Par ailleurs, afin de pérenniser deux emplois au sein du service animation, il est souhaitable de procéder à la création de deux postes d'adjoint d'animation à temps complet, à compter du 1er septembre 2025.

Ces créations de postes permettront de répondre aux besoins permanents des services, tout en valorisant les parcours professionnels des agents concernés.

Après avis du comité social technique,

Monsieur le Maire propose au Conseil Municipal, la création d'un poste d'ATSEM principal de 2ème classe à temps complet à compter du 1er juin 2025, ainsi que la création de 2 postes d'adjoint d'animation à temps complet à compter du 1er septembre 2025.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à la majorité :

- **DECIDER** la création d'un poste sur le grade d'ATSEM principal de 2ème classe, à compter du 1er janvier 2025, ainsi que la création de deux postes d'adjoint d'animation à temps complet à compter du 1er septembre 2025.

- **PRECISER** que les crédits nécessaires sont inscrits au budget primitif 2025.

Ensemble pour Ustaritz: Jakin dezakegu pertsona hori nor den eta zein elkargotik heldu den?

UB: Stéphanie Falzon du izena; egun, Bruges-eko herriko etxean lan egiten du, Bordele ondoan. Azpimarratu nahi dugu barne promozio adibide eder bat dela; alabaina, Nicolas Etcheverry gazteen zerbitzuko zuzendari bilakatuko da.

## 8- HAURREN ETA GAZTEEN ZERBITZUAN LANPOSTUEN SORTZEA

Semerena-Olaizola andereak gaia aurkeztu du: Cure langile batek 2. mailako ATSEM nagusi konkurtsoa kausitu duenez, dagokion lanpostua sortu behar da, 2025eko ekainaren 1.etik goiti denbora osoz izendatua izan dadin.

Bestalde, animazio zerbitzuan bi lanposturen iraunkortzeko, denbora osoko bi animazio lanpostu sortzea komeni da, 2025eko irailaren 1.etik goiti.

Lanpostu horiek sortuz, zerbitzuen behar iraunkorrak aseko genituzke eta langileen lan-ibilbideari balioa emango genioke.

Batzorde sozial teknikoaren iritzia ukan ondoan,

Auzapez jaunak herriko kontseiluari proposatu dio denbora osoko 2. mailako ATSEM nagusi lanpostu baten sortzea, 2025eko ekainaren 1.etik goiti, eta denbora osoko 2 animazio laguntzaile lanposturen sortzea, 2025eko irailaren 1.etik goiti.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak,gehiengoak :

- Lanpostu hauen sortzearen **ERABAKITZEN DU**: denbora osoko 2. mailako ATSEM nagusi lanpostu bat, 2025eko ekainaren 1.etik goiti, eta denbora osoko 2 animazio laguntzaile lanpostu, 2025eko irailaren 1.etik goiti.

- Behar diren kredituak 2025eko hastapeneko aurrekontuan pentsatuak direla **ZEHAZTEN DU**.

Pour / alde : -  
Contre / kontra : -  
Abstention / abstenzioa : 1 (M. SERRANO)

## 9- CREATION D'UN POSTE DE CHARGE DE COMMUNICATION

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant

Il est proposé au Conseil Municipal la création d'un emploi permanent à temps complet d'adjoint administratif principal de 1<sup>ère</sup> classe pour assurer les missions de chargé de communication au sein de notre Commune à compter du 1<sup>er</sup> juillet 2025 et pour une durée d'un an.

Cet emploi appartient à la catégorie hiérarchique C. Cet emploi permanent pourra être pourvu :

- Par dérogation, par le recrutement d'un agent contractuel en application des dispositions de l'article L.332-8 2° du Code général de la fonction publique, qui permettent de recruter des agents contractuels sur des emplois permanents lorsque la nature des fonctions ou les besoins du service le justifient et si aucun fonctionnaire n'a pu être recruté, soit au titre de la mobilité, soit parmi les lauréats de concours.

Les contrats de travail sont conclus pour une durée déterminée maximale de trois ans renouvelables par reconduction expresse dans la limite de six ans. Si, à l'issue de cette durée de six ans, le contrat est reconduit, il l'est par décision expresse et pour une durée indéterminée.

Dans l'hypothèse du recrutement d'un agent contractuel, l'emploi pourrait être doté d'un traitement afférent à un indice majoré 435.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DÉCIDE** de la création à compter du 1<sup>er</sup> juillet 2025 et pour une durée d'un an d'un emploi permanent à temps complet de chargé de communication et
- **DECIDE** que cet emploi pourra être pourvu par le recrutement d'un agent contractuel,
- **DECIDE** que dans l'hypothèse du recrutement d'un agent contractuel, cet emploi sera doté d'un traitement afférent à l'indice majoré 435.

## 9- KOMUNIKAZIO ARDURADUN LANPOSTU BATEN SORTZEA

Semerena-Olaizola andereak gaia aurkeztu du:

Herriko kontseiluari proposatu zaio denbora osoko 1. mailako administrazio laguntzaile nagusi lanpostu iraunkor baten sortzea, herriko komunikazio eginkizunen betetzeko, 2025eko uztailaren 1.etik goiti, urte baterako.

Lanpostu hori C hierarkia kategoriakoa da. Lanpostua honela betetzen ahalko da:

- Baimen bereziz, kontratu peko agente bat enplegatuz, funtzio publikoaren kode orokorreko L.332-8 2° artikuluari jarraiki. Alabaina, arauaren arabera, kontratu peko agenteak lanpostu iraunkorretan enplegatzen ahal dira, funtzioen nolakotasunak ala zerbitzuaren beharrek justifikatzen badute eta funtzionariorik ezin izan bada enplegatu, mugikortasunaren baitan ala konkurtsoa kausitu dutenen artean.

Lan kontratuak hiru urterako sinatzen dira gehienez; kontratuak luza daitezke, idatziz berrituz, gehienez sei urterako. Sei urteren buruan kontratua berritzen bada, idatzizko erabakia beharko da, eta kontratu mugagabea egin beharko da.

Kontratu peko agente bat enplegatuko balitz, lanpostuari 435 indize emendatuari dagokion soldata ezarriko litzaioke.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- 2025eko uztailaren 1.etik goiti, urte baterako, denbora osoko komunikazio arduradun lanpostu baten sortzearen **ERABAKITZEN DU**.
  - Lanpostu hori kontratu peko agente bat enplegatuz betetzen ahalko dela **ERABAKITZEN DU**,
  - Kontratu peko agente bat enplegatzen baldin bada, enpleguari 435 indize emendatuari dagokion soldata ezarriko zaiola **ERABAKITZEN DU**.
- Auzapez jaunari eranskinean proposatu lan kontratuaren sinatzeko **BAIMENA EMATEN DU**,



- **AUTORISE** Monsieur le Maire à signer le contrat de travail proposé en annexe s'il opte pour le recrutement d'un agent contractuel au terme de la procédure de recrutement,

- **ADOpte** l'ensemble des propositions du Maire

- **PRÉCISE** que les crédits suffisants sont prévus au budget de l'exercice.

**10- AVANCEMENT DE GRADE : CRÉATION D'EMPLOIS**  
**DIRECTION DES SERVICES - SERVICE ENFANCE**  
**JEUNESSE - SERVICE A LA POPULATION**

Madame Semerena-Olaizola présente le rapport suivant,

Vu la délibération du jeudi 29 septembre 2022 concernant l'article 49 de la loi n° 84-53 du 26 janvier 1984 modifiée donne compétence à l'organe délibérant pour fixer les taux de promotion pour l'avancement de grade, après avis du Comité Social Technique ; il a été proposé de retenir un taux de promotion de 100 % pour l'ensemble des cadres d'emplois pour les années 2023 à 2025.

Pour tenir compte de l'évolution des postes de travail et des missions assurées, le Maire propose au Conseil municipal la création des emplois suivants :

Service Enfance Jeunesse et Associations

- Animateur principal 2<sup>ème</sup> classe au 01<sup>er</sup> janvier 2025
- Agent de maîtrise principal au 1<sup>er</sup> avril 2025
- Agent de maîtrise principal au 13 octobre 2025

Service à la population

- Adjoint administratif principal de 1<sup>ère</sup> classe au 25 septembre 2025

Service Direction Générale

- Rédacteur principal de 1<sup>ère</sup> classe au 1<sup>er</sup> janvier 2025

Après avoir entendu Madame Marie-France SEMERENA dans ses explications complémentaires et après en avoir délibéré,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **DECIDE** la création, des emplois permanents à temps complet aux dates indiquées :

Service Enfance Jeunesse et Associations

- Animateur principal 2<sup>ème</sup> classe au 01<sup>er</sup> janvier 2025
- Agent de maîtrise principal au 1<sup>er</sup> avril 2025
- Agent de maîtrise principal au 13 octobre 2025

enplegatze prozeduraren buruan kontratu peko agente baten enplegatzea hautatzen badu,

Auzapezaren proposamen guzien **ONARTZEN DU**.

Behar diren kredituak ekitaldiko aurrekontuan pentsatuak direla **ZEHAZTEN DU**.

**10- GRADU AITZINAMENDUA: LANPOSTU SORTZEAK**  
**- ZERBITZUETAKO ZUZENDARITZA - ESKOLA**  
**HAURREN ETA GAZTEEN ZERBITZUA -**  
**BIZTANLERIARI BURUZKO ZERBITZUA**

Semerena-Olaizola andereak gaia aurkeztu du:

1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 lege aldatuaren 49. artikuluari buruzko 2022ko irailaren 29ko deliberamenduak organo deliberatzaileari gradu aitzinamenduan emendatze tasen finkatzeko eskumena eman zion, Batzorde Sozial Teknikoak iritzia eman ondotik. Enplegu koadro guzientzat % 100eko promozio tasaren atxikitzea proposatu da, 2023tik 2025era.

Lanpostuen eta misioen bilakaeraren kontuan hartzeko, Auzapezak Herriko kontseiluari proposatu dio enplegu hauen sortzea:

Haurren, Gazteen eta Elkarteen zerbitzua

- 2. mailako animatzaile nagusia, 2025eko urtarrilaren 1.ean
- Teknikari arduradun nagusia, 2025eko apirilaren 1.ean
- Teknikari arduradun nagusia, 2025eko urriaren 13an

Biztanleenganako zerbitzuak

- 1. mailako administrazio laguntzaile nagusia, 2025eko irailaren 25ean

Zuzendaritza Nagusi zerbitzua

- 1. mailako erredaktore nagusia, 2025eko urtarrilaren 1.ean

Marie-France SEMERENA anderearen azalpen gehigarriak entzun eta eztabaidatu ondoan,

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- Aipatu datetan gainean aipatu denbora osoko lanpostu iraunkorren sortzearen **ERABAKITZEN DU**.

Haurren, Gazteen eta Elkarteen zerbitzua

Service à la population

- Adjoint administratif principal de 1<sup>ère</sup> classe au 25 septembre 2025

Service Direction Générale

- Rédacteur principal de 1<sup>ère</sup> classe au 1<sup>er</sup> janvier 2025

- **PRECISER** que les crédits suffisants seront prévus au budget de l'exercice 2025 ;

- **DIRE** que les postes laissés vacants suite aux mouvements de personnel seront supprimés du tableau des effectifs après passage en comité social technique sur l'année 2025.

Ensemble pour Ustaritz : Il faut 6 mois d'ancienneté sur un grade pour pouvoir bénéficier de ce traitement à la retraite. Est-ce le cas ici. Si non, n'est-il pas possible de le faire de manière rétro active ?

UB : c'est bien le cas pour la seule personne concernée par le départ à la retraite.

## 11- MANDAT AU CDG 64 - CONVENTION DE PARTICIPATION DU CDG 64 - RISQUE SANTÉ

Madame Semerena-Olaizola expose les éléments suivants :

Conformément à la réglementation en vigueur, les collectivités locales et établissements publics ont l'obligation de participer au financement des garanties de protection sociale complémentaire, à partir du 1<sup>er</sup> janvier 2026, concernant les risques dits de « Santé » (frais occasionnés par une maternité, une maladie ou un accident).

Le Centre de Gestion des Pyrénées-Atlantiques a l'obligation de proposer aux employeurs publics territoriaux des conventions de participation couvrant les risques « Santé » et « Prévoyance ».

Il propose aux collectivités et établissements publics qui le souhaitent d'intégrer une démarche départementale concernant le risque « Santé » avec prise d'effet de cette convention à compter du 1<sup>er</sup> janvier 2026.

L'objectif de cette démarche départementale menée au niveau du Centre de Gestion est de pouvoir proposer à l'ensemble des collectivités et des établissements publics du territoire de bénéficier

- 2. mailako animatzaile nagusia, 2025eko urtarrilaren 1.ean

- Teknikari arduradun nagusia, 2025eko apirilaren 1.ean

- Teknikari arduradun nagusia, 2025eko urriaren 13an

Biztanleenganako zerbitzuak

- 1. mailako administrazio laguntzaile nagusia, 2025eko irailaren 25ean

Zuzendaritza Nagusi zerbitzua

- 1. mailako erredaktore nagusia, 2025eko urtarrilaren 1.ean

- Behar diren kredituak 2025eko ekitaldiko aurrekontuan pentsatuak direla **ZEHAZTEN DU**;

- Langile mugimenduen ondorioz hutsik gelditu diren lanpostuak 2025ean batzorde sozial teknikoan pasatu ondotik langileen taulatik kenduko direla **ERRATEA**.

Ensemble pour Ustaritz: Maila batean 6 hilabetez egon behar da erretretan tratamendu horren ukateko. Hemen, hala izanen da? Eta ez bada hala, ezin ote da gibel-ondorioekin egin?

UB: Erretretara doan pertsona bakarrarentzat, hala da, bai.

## 11- CDG 64RI MANDATUA - CDG 64REN PARTE HARTZE HITZARMENA - OSAGARRI ARRISKUA

Semerena-Olaizola andereak gaia aurkeztu du:

Indarrean dagoen araudiaren arabera, tokiko elkargoek eta establezimendu publikoek gizarte geriza bermeen finantzamenduan parte hartu behar dute, 2026ko urtarrilaren 1.etik goiti, "Osagarria" motako arriskuei buruz (amatasunak, eritasunek ala istripuek sortu gastuendako).

Pirinio Atlantikoetako kudeaketa zentroak lurraldeko enplegatzaile publikoei "Osasuna" eta "Aurreikuspena" arriskuak barne hartzen dituzten parte-hartze hitzarmenak proposatu behar dizkiete.

Nahi duten elkargo eta establezimendu publikoei "Osagarria" arriskuari buruzko departamendu-desmarxa batean sartzeari proposatzen die, eta hitzarmen hori 2026ko urtarrilaren 1.ean sartuko da indarrean.

Kudeaketa Zentroak daraman departamenduko desmarxa horren xedea lurraldeko elkargo eta establezimendu publiko guzietan lege babestua den parte hartze hitzarmen baten ukatearen proposatzea da.

d'une convention de participation sécurisée juridiquement.

Cette convention est conclue, à l'issue d'une procédure de mise à concurrence, avec une mutuelle ou unions de mutuelles, une institution de prévoyance ou une entreprise d'assurance.

Dans ces conditions, la commune d'Uztaritze, est intéressée pour se joindre à la procédure de mise en concurrence effectuée par le CDG 64.

Le mandat donné au Centre de Gestion par la présente délibération permet à la commune d'Uztaritze d'éviter de conduire sa propre consultation et de bénéficier de montant de cotisations mutualisés et cohérents grâce au jeu et à l'effet mutualisateur de la solidarité départementale.

Le Maire précise qu'au vu de la démarche (consultation), la décision définitive d'adhésion à la convention de participation fera l'objet d'une nouvelle délibération, après communication des taux et conditions obtenus par le CDG 64.

Vu l'avis du Comité social territorial.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **CONFIE** au CDG 64 le soin de lancer une procédure de consultation, en vue, le cas échéant, de souscrire une convention de participation en matière de santé avec un opérateur agréé (mutuelle, institution de prévoyance ou assureur) avec prise d'effet le 1<sup>er</sup> Janvier 2026.

- **S'ENGAGE** à transmettre, avant le 21 février 2025, le fichier des statistiques afin d'apporter lors de la consultation des données relatives à la population à assurer.

La décision éventuelle d'adhérer à la convention de participation proposée par le CDG 64 fera l'objet d'une délibération ultérieure.

#### • TRANSITION ECOLOGIQUE ET ENERGETIQUE

#### 12- ENERGIE - PROGRAMME ACTEE+ - CHENE 3 - SIGNATURE D'UNE CONVENTION AVEC LA COMMUNAUTE D'AGGLOMERATION PAYS BASQUE

Madame Marty-Chaléon présente le rapport suivant :

La Communauté d'Agglomération Pays Basque, engagée par le Plan Climat qu'elle a adopté en juin

Lehia prozeduraren buruan, hitzarmen hori mutualitate batekin, mutualitate multzo batekin, aurreikuspen erakunde batekin ala asurantz enpresa batekin sinatzen da.

Baldintza horiek kontuan izanik, Uztaritzeko herriak 64 kudeaketa zentroak martxan eman lehian emate prozeduran sartzeko interesa du.

Deliberamendu honek Kudeaketa Zentroari eman mandatuari esker, Uztaritzeko herriak ez du kontsulta bere aldetik egin beharrik, eta departamenduko elkartasunaren multzokatze efektuari esker, kotizazio bateratu eta koherenteak ukan ditzake.

Auzapezak zehaztu du, desmartxa kontuan izanik (kontsulta), parte hartze hitzarmenean sartzeko behin betiko erabakiaz berriz deliberatu beharko dela, 64 kudeaketa zentroak kausitu baldintzen eta tasen berri ukan ondotik.

Lurralde Batzorde Sozialaren iritzia kontuan izanik,

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- Eragile onetsi batekin (mutualitatea, aurreikuspen erakundea ala asurantz enpresa) 2026ko urtarrilaren 1.ean indarrean sartuko litzatekeen osagarriari buruzko parte hartze hitzarmen baten sinatzeko kontsulta baten abiatzea 64 kudeaketa zentroaren **ESKU EMATEN DU.**

- 2025eko otsailaren 21a aitzin, estatistiken fitxategiaren helaraztera **ENGAIATZEN DU,** kontsultarentzat asurantz beharko duten jendeei buruzko datuen emateko.

64 kudeaketa zentroak proposatu parte hartze hitzarmenean sartzea ala ez sartzea beste deliberamendu baten bidez erabakiko da.

#### \* TRANTSIZIO EKOLOGIKOA ETA ENERGETIKOA

#### 12- ENERGIA - ACTEE+ PROGRAMA - CHENE 3 - EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOAREKIN HITZARMEN BATEN SINATZEA

Marty-Chaléon andereak gaia aurkeztu du:

2021, poursuit ses actions en faveur de la réduction des consommations énergétiques, notamment par un accompagnement aux communes membres.

Dans la continuité du programme ELENA, la CAPB a été lauréate de l'appel à projet Fonds Chênes – saison 3 », porté par la F.N.C.C.R et dont les communes peuvent bénéficier par le biais d'une convention à signer avec la CAPB.

Cette convention permettra un reversement de fonds perçus par la CAPB aux communes pour le financement d'audits énergétiques de bâtiments publics tertiaires, qui seraient financés à hauteur de 50 %.

L'estimation d'un audit est de 4 964,00 € HT (prix définitif à confirmer par la CAPB) avec un reste à charge de 50 % pour la Commune.

Le bâtiment à auditer sera proposé par la commune et validé par la CAPB.

Le Centre Technique Municipal, identifié en 2020, lors du lancement du programme Elena, pourrait être proposé.

**Considérant** l'opportunité de cet accompagnement technique et financier,

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **APPROUVE** la convention proposée par la CAPB pour la mise en œuvre du programme ACTEE+-chêne 3,

- **AUTORISE** Mr le Maire à signer cette convention et tous les documents afférents à cette convention,

- **PRECISE** que les crédits correspondants sont prévus sur le budget 2025

### **13- AIDE A L'ACQUISITION DE VELOS A ASSISTANCE ELECTRIQUE DANS LE CADRE DU PLAN VELO**

Madame Marty-Chaléon présente le rapport suivant,

La commune d'Uztaritze souhaite œuvrer concrètement pour la mobilité durable sur son territoire et en particulier pour la promotion des modes doux alternatifs à la voiture.

Par délibération, le Conseil municipal du 27 octobre 2020 a décidé :

Euskal Hirigune Elkargoak 2021eko ekainean Klima Plana onartu zuen; beraz, gai horretan engaiatua da, eta energia kontsumoen murrizteko ekintzak plantan ematen segitzen du, bereziki herri kideak lagunduz.

ELENA programaren ildotik, Elkargoa FNCCRek daraman "Fonds Chênes – saison 3" proiektu deialdian hautatua izan da; herriek balia dezakete, Hirigune Elkargoarekin hitzarmen bat sinatuz.

Hitzarmen horren bitartez, Elkargoak eskuratu dituen funtsak herriei ematen ahalko dizkie, hirugarren sektoreko eraikin publikoen energia-ikuskaritzen % 50 diruztatzeko.

Estimazioen arabera, ikuskaritza batek 4 964,00 € balio du, gordin (behin betiko prezioa Elkargoak baieztatu behar digu), eta horren % 50 herriaren gain gelditzen da.

Ikuskatzeko eraikina herriak proposatu behar du, eta Elkargoak onartu.

Herriko Zentro Teknikoa, 2020an Elena programa abiatu zelarik identifikatu zena, proposa genezake.

Teknika eta diru laguntza horren egokitasuna **kontuan harturik**,

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- ACTEE+-chêne 3 programaren obratzeko Hirigune Elkargoak proposatu hitzarmenaren **ONARTZEN DU**,

- Auzapez jaunari hitzarmen horren eta dagozkion agiri guzien sinatzeko **BAIMENA EMATEN DU**,

- Behar diren kredituak 2025eko aurrekontuan pentsatuak direla **ZEHAZTEN DU**.

### **13- BIZIKLETA ELEKTRIKOEN EROSTEKO LAGUNTZA. BIZIKLETA PLANAREN BAITAN**

Marty-Chaléon andereak gaia aurkeztu du:

Uztaritzeko herriak bere lurraldeko mugikortasun iraunkorraren alde konkretuki lan egin nahi du, eta, bereziki, autoaren ordeaz garraio bide berdeagoak sustatu.

Herriko kontseiluak, 2020ko urriaren 27ko deliberamenduan, hau erabaki zuen:

- d'attribuer une subvention pour les personnes physiques justifiant de leur résidence principale à Uztaritze, qui achètent un vélo à assistance électrique, ou un vélo cargo, neuf, auprès d'un professionnel établi sur le territoire de la CAPB.

- d'autre part d'adopter un règlement d'intervention qui détaille le contenu du dossier de demande de subvention et le montant de la subvention accordée. Ce règlement peut évoluer par décision du Conseil Municipal.

Les dossiers complets suivants qui nous sont parvenus ont été examinés dans le cadre de la commission communale compétente et selon le dernier règlement en vigueur adopté le 11 avril 2024.

Le règlement en vigueur prévoit :

- L'attribution d'une subvention forfaitaire de 160 €, si le quotient familial du foyer est inférieur à 1 800 €
- L'attribution d'une subvention forfaitaire de 100 €, si le quotient familial du foyer est compris entre 1 800 € et 2 000 €

Une majoration de 20 € est appliquée pour les foyers optant pour un versement en eusko.

Après en avoir longuement délibéré, le Conseil Municipal, à l'unanimité :

- **APPROUVE** le versement d'une subvention à :
  - Madame Samantha CHATAUX pour un montant de 100€

- **PRÉCISE** que les crédits suffisants sont prévus au budget de l'exercice.

#### \* QUESTIONS ORALES

#### \* COMPTE-RENDU DE DELEGATION

#### \* COMMUNICATIONS DU MAIRE ET DES ADJOIN

- Bizitegi nagusia Uztaritzen duten eta EHEko lurraldean dagoen profesional bati bizikleta elektriko edo kargo bizikleta berri bat erosten dioten pertsona fisikoei dirulaguntza baten ematea.

- eta, bestalde, dirulaguntzaren eskaera txostenaren edukia eta dirulaguntzaren zenbatekoa zehazten dituen esku hartzeen araudi baten onartzea. Araudi hori alda daiteke, Herriko kontseiluak hala erabakiz gero.

Eskuratu ditugun txosten hauek herriko batzorde eskudunak aztertu ditu, 2024ko apirilaren 11ko araudi berria kontuan hartuz.

Indarrean dagoen araudiak hauek finkatzen ditu:

- 160 €-ko dirulaguntza finkoaren ematea familiaren familia-kozientea 1 800 € baino apalagoa baldin bada
- 100 €-ko dirulaguntza finkoaren ematea familiaren familia-kozientea 1 800 € eta 2 000 € artekoa baldin bada

Dirulaguntza euskotan eskuratzea erabakitzen dutenei 20 €-ko gehikuntzaren ematea.

Luzaz deliberatu ondoren, herriko kontseiluak, aho batez :

- Dirulaguntza hauen ematearen **ONARTZEN DU** :
  - Samantha CHATAUX anderea : 100€
- Behar diren kredituak ekitaldiko aurrekontuan pentsatuak dira.

#### \* AHOZKO GALDERAK

#### \* ORDEZKARITZEN BILDUMA

#### \* AUZAPEZAREN ET AUZAPEZORDEEN KOMUNIKAZIOAK